



IRUZURRAREN AURKAKO PLANA

ETSk bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Planarekin. Nola? Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Red Ferroviaria Vasca/ Euskal Trenbide Sarearen arteko hitzarmena, "hiriinguruneetako eta ingurune Metropolitarrerretako mugikortasun jasangarri, seguru eta konektatuaren talka-plana" izeneko 1. osagaiaren esparruan inbertsio-jarduketak gauzatzeko, europar batasunak finantzatutako suspertze-, eraldaketa- eta erresilientzia-plana – next generation eu delakoaren esparruan.

Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzea, hatematea eta zuzentzea

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, 22. artikuluan xedatzen du estatu kideen betebeharra dela Europar Batasunaren finantza-interesak babestea, eta neurri egokiak hartzea iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean planteatutako ekimenak gauzatzeko, administrazio publikoek kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitu behar dituzte. Arintze-neurri batzuk abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarri ziren, zeinak Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premia neurriak onartzen dituen.

Gainera, Europako Batzordeko Zerbitzuetarako ordainketa-eskaeren tramitazio eraginkorra errazteko kudeaketa-sistema baten garapenean, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena. 6. artikuluan iruzurraren aurkako neurrien plan bat idaztea eskatzen du Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoko (MRR) funtsak kudeatzen dituen erakunde bakoitzarentzat, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeko.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren salaketa-postontzia

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarekin (SEM) finantzatutako jarduerekin lotuta egin daitezkeen salaketei erantzuteko, eta, gainera, iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumenari kalte adierazgarririk ez egitearen arloko eskakizunak betetzeari buruzko neurrien planean xedatutakoa betetzeko, postontzi elektronikoa bat prestatu da buzon-mrr@euskadi.eus eragile eta herritarrei irekia dagoena.

Postontzi elektronikoa horretan jasotako komunikazioak berriazko protokolo baten bidez tratatuko dira, salatzailen nortasuna babesteko. Egindako salaketak kualifikazio berezia duten eta eginkizun horretara bideratuko diren langileek ikertuko dituzte.

Iruzur posibleren bat detektatuz gero, edo horren susmo oinarri dagoenean, erakunde betearazleek konpromisoa hartzen dute ahalik eta eperik laburrenean jakinaraziko dietela antzemandako iruzurra edo iruzurraren susmo oinarri duna bai erakunde interesdunei bai inplikaturako erakundeei. Erakunde interesdunak dira Iruzurraren Aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), Iruzurraren Aurkako Borrokarako Europako Bulegoa (OLAF), fiskaltza eta auzitegi eskudunak. Inplikaturako erakundeak, berriz, erakunde betearazlea eta kudeaketa-organoak izango dira.

Nolanahi ere, prozedura horietan kontuan izango dira aplikatzekoak diren Europako, Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudiek eragin horietarako ezartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak.

VI. eranskinean (46. orrialdea) interes-gatazken modalitateak, aplikatu beharreko araudia eta balizko interes-gatazka bat hautemanenez gero jarraitu beharreko prozedura zehazten dira.

- [Iruzurraren aurkako plana - Ekonomia - Eusko Jaurlaritzaren - Euskadi.eus](#)
- [Neurrien Plana.pdf \(euskadi.eus\)](#)